

VIVO SIN VIVIR EN MI ♪!";: (ZUBEROKO EUSKERAZ) V" ;;

Azkenengo KARMEL irakurri dauanak badaki Teresaren kanta batek, euskerazko bertsotan jarrita, arrera zabala izan dauala Euskal-lerrian eta gure eleiz-kantutegian sartuta gelditu izan dala, euskal-musikaz jantzita. KARMEL aldizkari onek *Vivo sin vivir en mi* erdal-bertsoen euskerazko itzulpen biren barri emon eban an: biak, antza danez, XVIIIgarren gizaldikoak; bata, Larregi idazlearena, lapurdieraz, eta bestea, Zuberoko euskeraz. Larregirena osorik emon jakon irakurleari eta era bitara, Larregik berak euskeratu eban lez, eta naparren batek egindako ikututxoekin Aita Donostiak argitaratu euskun lez. Zuberorazko itzulpen osoa ezagutzeko ez jakon irakurleari aukerarik emon.

Oraingoan, itzulpen osoa ezagutu nai leuken bati atsegin emotearren, eta beste batzuen atsegingarri izango dalako ustean, emen ikusiko ditugu amairu bertsoak osorik.

Bertsoak, bai Larregik euskeratuak, eta bai besteak, askotan urten dabe argitara ainbeste bidar argitaratuak izan diran *Kantika Izpiritualak* izeneko liburuetan, eta *Othoitze* eta *Kantika Espiritualak* izenpekoetan. Ia bati onelangoxe titulu izan dabe: «Santa Teresaren sendimenduak (edo bozkariozko eskerrak), komunione ondoan».

Zuberoko euskerazko itzulpenak, orraitio, eztau Lapurdikoaren antz andirik ageri. Ez bertsoen neurritz bakarrik, mamiz be bertso naiko ezbardinak dira. Nondik dator ezbardintasun au? Lenengo ta bein, ulergarri danez, itzultzaille bakotzak euskal-bertsotarako esku

eta ganora ohea edo txarragoa eukitetik, atarako trebeago edo ez ain trebe izatetik. Eta gero, itzutzaille bakotxak aurrean euki dabezan erderazko testo ezbardinetatik. Zein testo euki dau bakotxak aurrean?

Ezta au ganorabako itaunik. Azkue zanak Teresaren bertso onei musikea ezarri eutsenean aurrean euki eban bertsoen bat, esaterako, nekez aurkitzen da oraingo argitaraldietan. Zer jazo da? Teresaren izenean dabilizan bertso asko ez dirala Teresarenak edo ez dirala beti bardin agertu. Bertso askok, eskuz esku ibilliz, kopiaz kopia, ikutu eta aldaketa asko izan dabez, batetik; eta bestetik, esku barriak be sartzen dira, lengo bertso ezagunai, geigarri edo luzagarritzat, beste batzuk ezarten. Olan, Santa Teresarenak diralakoa, ez tiranak be sartu eta badiralakotzat argitaratu izan dira. Aldi baten, nonbait, «Vivo sin vivir» ori, eta «ezin-illez ilbear» ori, gai kutun eta maitagarri egin ziran askorentzat eta asko alegindu ziran gai bera bertsoz jantzi eta azaltzen. Gai oni beroni ekin eutsan Joan Kurutzekoak berak be.

Ezta, bada, arritzekoa, baldin batzuen eta besteen bertsoakaz naste apur bat sortu bada, eta Teresarenakaz beste bertso batzuk nastau eta zabaldu badira.

Zuberoerazko itzulpen onetara gatzela, alan be, auxe esan bear da argi eta garbi: lenengoz Teresaren izenean argitaratu ziranai, Diego Yepes ospetsuak Teresa ilbarritan atera eban Avilako andre deunaren Bizitzan jaso eta ezaguerazo zituena, bertsoz bertso, zeatz jarraitzen deusela.

Othoitze eta Kantika Espiritualak liburuan, bada beste kanta bat, Teresak ilteko orduan izandako *sendimentiak* ixuri eta adierazo nai dituana. Baina ez tira Teresaren bertsoak, Teresaren sentimentuak bertsoan jarriak baino.

Orain, zuberoerazko bertsook emen jartzean, itz bat edo beste argitu nai deusaguz irakurleari, errazago ulertzen laguntzeko.

Itz batzuen azalpena. *Zelia*, zerua; *ardura*, sarri, askotan; *ala belt a luze*, zein luzea dan; *gaiza debeiagarria*, gauza nekagarria; *eguruki*, *egurukite*, itxaron, itxarote; *bortizki*, oso, txit; *debeiatu*, aspertu, nekatu; *if us*, zoriontsu; *galtatu*, galdatu, eskatu; *korpit*, gorputz; *zekuru*, sekula, bizia; *koraje*, adore, kemen; *heriua*, eriotza; *sesitu*, artu, arrapatu; *balius*, baliotsu; *iseia*, saiatu, alegindu; *azken*

oren, azken ordua; *hanitz perexatia*, guztiz, oso maitatua, estimatua; *pakhu*, sari, ordain; *kitatu*, itxi, utze; *ez diferi*, ez luzatu; *hasperenez*, zizpuruz; *plazer falsiez*, atsegin guzurrezkoz; *emendatu*, geitu, geia-gotu; *lotsaturik*, bildurturik; *jalki*, urten, atera; *urhentzen*, amaitzen, bukatzen; *halabar*, era berean; *kristia*, kristaua; *khatina*, katea; *soz nagoela*, begira nagoela; *tronpagarri*, enganagarri, guzurrezko...

Aita Akesolo

EZIN HILEZ HILTZEN

Jinkuak hazten nai, harez niz bizitzen;
Badii harek zelian bizitze ederra,
Zuifi beitut galtatzen ardiira,
Ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

- 1) Jinkua osoki juntatzen dela niri
Seinditzen dit nitan haren huntarzuna
Libre niz eta ez hura,
Bere borontatez ene da zerbutxari.
Jinkua kaptibo! Nur ezta izitzen?
Hori da hori miragarri!
Ezin akagatzez dolorez niz hiltzen.
- 2) Beldur niz orano heben nizatekian,
Ala beita liize ene egoitza!
Gaiza da debeiagarria!
Ene arima da heben presontegian,
Hiltze balius bat dit egurukiten,
Eta eguriikite hortan
Ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.
- 3) Eztiit bizitzia gozatzen plazereki.
Zii gabe, Jinkua, ezta bizitzerik,
Ez deus ere baliusik.
Jesus, Jaun ezta, maite zutut bortizki;
Bena niizii hanitz heben debeiatzen
Eta bizitzen doloruski;
Ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.